

Robot ikt

Eibarko Udalak Robotikan inguruko ikastaroa antolatu du zientzia eta teknologiaren mundu ikusgarrian murgiltzeko. Robotak erabiliaz diseinatzen, eraikitzen eta programatzen ikasiko dugu. Haur eta nerabeen inteligentzia, gaitasunak eta doaiak garatuz ondo pasatzen dugun bitartean. **Lehen hezkuntzako 3. eta 4.** mailako ikasleek Ikastaroan izena emateko **ezinbestekoa** izango da **AITAK** edo **AMAK ere parte hartzea**.

Tramitatzailerak: Kultura

Hartzaileak: LHko 3., 4., 5. eta 6. mailak

Taldeak: 4 talde.

(Txanda eta ordutegia matrikula orrian aukeratu)

Ikastaroaren prezioa: **10€ (Eibarren erroldatuak)**
20€ (Eibartik kanpokoak)

Ikastaroaren ordainketa: matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta

Eskaera egiteko tokia:

PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

Eskaera egiteko epea:

2014ko urriaren 16tik 24ra (biak barne)

Nork emango du: Itzamna akademia

Non: Haur Liburutegia. Portalea.

Datak: bi txanda

Txanda 1: azaroak 1, 8, 15 eta 22

Txanda 2: abenduak 6, 13, 20 eta 27

LH. 3. eta 4.: 16:30etatik 18:00etara

LH. 5. eta 6.: 18:00etatik 19:30etara.

Ikasle kopurua: LH. 3. eta 4. ikasleentzat gutxienez 4 ikasle eta gehienez 8 ikasle.

LH. 5. eta 6. ikasleentzat gutxienez 8 ikasle eta gehienez 16 ikasle.

Ikastaroaren hizkuntza: euskeraz.

Aurkeztu beharreko agiriak:

“**IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA**” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.eus, eskuragarri).

Aitaren, amaren edo tutorearen **NANaren** edo balio bereko dokumenturen baten kopia.

NAN dokumentuen alde biak A-4 neurriko alde bakar batean inprimatuko dira.

Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxienerako ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.eus), **2014ko urriaren 29an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **2014ko urriaren 29an 08:45etan**. Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiak zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio. Lau zerrenda egongo dira, ordutegi bakoitzeko bat. Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zerrenda bakoitzeko zenbaki bakar bat ateratzen da. Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horren jarraian dauden zenbakiak dituztenak izango dira ikastarorako aukeratuak plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean egongo da **2014ko urriaren 30etik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Oharrak: Talde batean matrikularako izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada eta beste taldean izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, aurreneko taldea beste taldearen ikasle-kopuruz osatu ahal izango da zozketak emandako emaitzari atxikituz.

Informazio gehiago: 943 708 437